

noaia

**Osatu da udalbatza
berria**

Maskarada, iruditan

**Ostiral honetan hasiko
dira Kalezarko festak**



Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi

“Denboraldi ona osatu dugu”

LIZARDI LIBURYDENDA



·IKASTURTE BERRIRAKO
LIBURUAK SALGAI
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,
eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115

Ondo pasa jaietan!



BIDAIK
TALDEAN

NOAOA

BIDAIK

943 37 36 13 noaoa.eus Hipodromo Etorbidea, 10 Lasarte-Oria

ARATZ

zabaleta anaiak



30 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Albiste irudituan

“Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimenaren aurkezpena egingo dute larunbat honetan

Kalean behar zuten arren, Usurbil-dik 600 kilometrora Picassenten preso segitzen dute Olatz Lasagabasterrek, Patxi Urangak eta haien haur Xuak. Xuak 3 urte beteko ditu urtarrean eta Valentziako espetxetik irten beharko du, gurasoak bertan utzita. Xua gurasoengandik banatu ez eta hiruren etxeratzearen alde lan egingo duen “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimena aurkeztuko dute larunbatean (ekainak 22). Aldaketarik ez bada, 12:00etan Askatasuna plazako parkean.

Arropa salmenta

Aipatu herri ekimenaren aldeko arropa saltzen aritu ziren Ikastola Egunez Sutegi atarian. Postua asteotan jarriko dute berri.

Zikiro janerako txartelak agortuak

Antolakuntzak ohartarazi duenez, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko



Herri ekimenaren aldeko arropa jarri zuten salgai Ikastola Egunean. Datozen asteetan ere jarriko dute salmenta postua.

Usurbilgo jaietako zikiro-janerako txartelak agortu dira. Gogoan izan, “txartelak ezingo dira itzuli ekainaren 28tik aurrera”. Ohar gehiago. Jaiak tarteko azken

ostiraleko elkarretaratzerik ez da izango; haren orde, urteroko jaietako presoan eskubideen aldeko ekitaldia ekainaren 29an 20:00etan Olanoeneko plazan.

Laburrean

1955ean jaiotako kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute bere eguna 1955ean jaiotakoek. “Egun pasa egingo dugu, Gezaltza-Añanako gatz arana, Nerbioiko ur jauzia eta Urduña ikustatuz. Jakinaren gainean izateko. Izena irailean eman beharko da”.

1979an jaiotako kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa bazara eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

Udako ordutegia Euskotrenen

Ekainaren 24an hasiko da udako ordutegia Euskotrenen. Irailaren 8ra arte egongo da indarrean. Aipatzekoa asteburuetan ordu erdiro izango dela tren zerbitzua. Informazio gehiago: euskotren.eus

noaúa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eus ||| www.noaúa.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publicitate@noaúa.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaúa.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Ixaso Orbegozo

Zein hurbil eta hain urrun

Igandeko maskaradak liluratuta nauka oraindik. Telebistan ikusi izan dut maskarada eta pastoralen bat, zatitxo bat baino ez bada ere. Zuzenean ikus-tea ederra izan zen, berezia bai behintzat. Zuberoara egin genuen berehala, Gipuzkoan, baina aldi berean Zuberoan egongo bagina bezala.

Zuberoa beti imaginatu izan dut leku euskaldun eta zoragarri modura. Beti izan dut zerbait berezia Ipar Euskal Herriarekin, eta batez ere, Zuberoarekin. Mendi inguruan herri txikiz osatutako euskal probintzia, Macron jauna eta bere gobernuko kideek ahaztuta utzi duten euskaldunen lurraldea. Duela hilabete izan nintzen Zuberoan, Maulen hain justu. Hiriburua izanagatik, oso txikia da. Ez nuke onartu nahi huts egin zidanik, baina Frantziako edozein herri txikiren tankera hartu nion. Eguerdia eta inor ez kalean, hila, abandonatua zirudien. Hori bai, imaginatzen nuen bezain polita da. Harri grisez eginiko etxeak, arkitektura frantses kutsu horrekin, bai-

na bestelakoa oso. Postal batean aurki genezakeen Zuberoa horrekin egin nuen topo, Euskal Herriko tokirik politenetako bat nire ustez. Pena handia izan nuen ordea, inor ere euskaraz hitz egiten ez bainuen entzun. Ezta bat bera ere. Zuberoak beti erakarri izan nau bere euskalkiagatik. Mendi artean galduta dagoen lurraldea izanik, ondo gordea duten altxor modura ulertzen nuen zuberera. Frantsesak oraindik gehiago aldatu gabeko hizkuntzatat nuen, Macron eta estatu frantsesaren ideologia zentrista horren eskuetan oraindik erori gabea. Zuberera entzuteko aukerarik izan gabe itzuli behar izan nuen etxera, pena galanta.

Igandeko aukera ezin nuen galdu Zuberoa euskalduna ezagutzeko. Arratsaldeko ekitaldira joan nintzen zuzenean, telebistan behin edo behin ikusitako maskarada hori zer den irudikatu asmoz. Jantzkerak harritu ninduen lehenengo. Pertsonaia bakoitzaren atzean dagoen sinbologia ulertu nahian aritu nintzen. Ez nintzen ondorio jakin batera heldu, ordea. Aurpegia estalita gorritz jantzita zebiltzan gaztetxoak

borrero edo urkatzaileak izan zitezkeela pentsatu nuen, baina ezer antzeztu ez zutenegaz horrekin geratu nintzen. Baten bati entzun nion ma-muak ote ziren. Gehien harritu ninduen hurrengo kontua euskalkiarena izan zen: ez nuen tutik ere ulertzen hasieran. Horren gutxi ulertzen nuen ezen ondoan neukanari galdetu behar izan bainion: "Euskaraz ari al dira?", eta ondokoak: "Bai, Zuberoako euskalkian, edo hori uste dut behintzat". Oso euskalki polita denik ezin uka, baina ulertzeko a zer nolako komeriak. Grabatu nituen bideoak birritan ikusi eta entzun behar izan ditut esaldiak osorik ulertu ahal izateko. Euskalkia horren da polita, baina horren urruna aldi berean... Gure euskalkiak gaztelararekiko eragin nabarmena izan duela garbi dago, haiena, ordea, puruagoa iruditu zitzaidan frantsesak horrenbesteko eragina izan ez ote duen edo. Azentu aldetik bai, argi dago eragina, baina gainontzean oso zaharra iruditu zitzaidan, oso berezia.

152 kilometrok bereizten gaituzte bere hiriburutik, Bilbotik baino 40 kilometro

gehiagok besterik ez. Zergatik ez daukagu horren harreman estua zuberotarrekin? Historiak batu gintuen lurraldea geroz eta urrunago dugu, eta lur eremuek lehenengo leku berean jarraitzen dute. Frantziako estatuak ederki jakin du urte luzeetan propaganda estatu zentrista hori zabaltzen. Ia 150 urtean iparraldeko euskalkiak desagerraraztea lortu eta Euskal Herriko hiru probintziak frantses izateaz harro sentiaraztea ere lortu du. Eskerrak oraindik herri mugimenduak badiren euskaldun izaera ez galtzeko.

Maskaradak Ipar Euskal Herriarekiko daukadan ikuspuntu ezkor hori zertxobait aldarazi dit. Oraindik Ipar eta Hegoaren arteko harremanek bizirik dirautela erakutsi dit, eta hala izango den esperantza berpiztu dit. Gisa hone-tako ekimen gehiago sortu behar ditugu herrien arteko harremanak indartzeko eta berriz ere, herri bateratu sendo bat sortzeko. Oraindik ere lotzen gaituzten iraganeko elementu horiek hemen jarraitzen dute. Ea denbora gutxian urruntasuna gertutasun bilakatzen dugun.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Ixaso Orbegozo | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Hasiz Hazi beka deialdi berria

Kabiene Elkarlan Gunean diruz lagundutako urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetzen duen beka deialdi berria iragarri du Usurbilgo Udalak. 2019. urtean enpresa proiektu berri bat duen Beterri-Buruntzako udalerriren batean errolatua dagoen ekintzaileari zuzendua dago deialdia.

“Elkarlan gune hau, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izango da. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari”.

Horrekin batera, “Beterri-Buruntza ekinean, enpresak sortzen laguntzeko aholkula-



Hautatuak Kabienean urtebeteko egonaldia egiteko aukera izango du.

EPEA

“Eskabideak aurkezteko irailaren 30era arteko epea izango dute interesdunek”

ritza zerbitzuaz baliatu ahal izango dira”.

Xehetasun gehiago, udaletxean

Informazio gehiago, maiatzaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo udaletxeko erregistroan.

Eskabideak aurkezteko irailaren 30era arteko epea izango dute interesdunek.

3 langabetu gehiago maiatzean

217 langabetu zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak maiatzean Usurbilen, apirilean baino 3 herritar gehiago. Buruntzaldean ere zertxobait gorantz; 9 langabetu gehiago. Gipuzkoan aldiz, 309 langabetu gutxiago zenbatu dituzte.

Erregistraturiko lan kontratu kopuruak ere gorantz egin du nabarmen. Apirilean 327 izan ziren, maiatzean 70 gehiago, guztira 397. Gehienak, 299, aldi baterako eta 242 zerbitzuen sektorean. Oraindik orain emakumezko langabetu gehiago izaten segitzen du udalerrri honek (119) gizonezko langabetuak baino (95). Eta gizonezko gehiago kontratatzen segitzen da (195 maiatzean) emakumezkoak baino (132 maiatzean).

Ika-mika

Pentsio publikoentzat udazken erabakigarria: errealitateen ordua da orain, ez promesena

17 hilabete etengabe daramatragu, EAEko eta Nafarroako ehunen bat herrietan asteroko kontzentrazioekin batera, herrialdeko eta eskualdeko manifestazioak eta beste ekimenak egiten. Promesak gauzatzeko ordua da honenez gero.

Huteskunde kanpainak bukatu dira eta PP-ren, Cs-en eta Vox-en porrotaren ondoren, Kongresu berrian, alderdi aurrerakoiek gehiengoak dute. Hauek denak, borondatea badute gure eskakizunak onartu ditzakete. Botoa eman dieten herri sektoreen aurrean erantzukizuna badute, bereziki pentsiodunen talde zabal batekin, pentsio baxu eta erdi mai-

lakoekin. Egoera honek, gure eskakizunei erantzuna ematea eskatzen du.

Behin eta berriro berresten dugu, orain arte eskatu dugun eskariak justuak eta bidegarriak direla.

Pentsiodunen mugimendua giltza da

Indar politiko aurrerakoiek gure eskubideak onartu ditzaten, nahikoa presionatu lezakeen mugimendu bakarra, pentsiodunena da. Orain arte lortu dena horri esker izan da. Baina asko geratzen da egiteko, batez ere EAEn eta Nafarroan, 825 eurora iristen ez diren 225.000 pertsona daudenean, eta hauen zati handi bat 650 euro baino gutxiagorekin

daudenean. Egoera hau Estatu osoan, beste 3.000.000 kasutan errepikatzen da.

Gure mugimendua anitza da eta hedapena akordioaren bidez indartu behar da. Ezin dugu onartu bankuak eta funts pribatuak izatea erabakitzaileak. Pentsiodun euskaldunok erabakitzeko eskubidea dugu pentsioen ereduaz eta pentsio publikoei buruz.

Pentsioei buruz eta adineko pertsonen zaintzari dagokion beste zerbitzuei buruz ere, konpromisoak eskatuko ditugu, eta udaletxeko, Foru Aldundietako eta Autonomia Erakundeetako eta Gobernu Zentraleko gobernu berriei eskaerak egiten jarraituko dugu.

Gainera iragarri nahi dugu,

irailetik aurrera gure ekimenak eta mobilizazioak biderkatuko ditugula beste talde eta sektore sozialekin, langile aktiboekin eta langabeekin, emakumeekin, gazteekin, ikasleekin eta herri sektoreekin koordinatuta. Erantzun zabala, zeharkakoa eta anitza emanez, pentsio duinak eta gero eta ezinbestekoago den jendartearen gehiengoari eragiten dien eskubide sozialak lortzeko.

Euskadi eta Nafarroako Pentsionisten Plataformak

Oharra: jubilatutako elkarrekin deitutako pentsio eta bizi duinen aldeko hileroko elkarretartetzea, ekainaren 27an 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Osatu da udalbatza berria

Udalbatza berria eratzeko ekitaldian ez zen ezustekorik izan. Bozketa garaian, Agurtzane Solaberrieta Mesa izandatu zuten Usurbilgo alkate. Xabier Arregiren eskutik jaso zuen aginte zumea.

Larunbat eguerdian abiatu zen legealdi berria. Udaleko pleno aretoa txiki geratu zen. Bertan ziren aurreko legealdiko udal ordezkariak nahiz berria osatuko dutenen lagunak eta senideak.

EH Bildu nahiz EAJ-PNVko ordezkariak legeak hala behartuta hartu zituzten zinegotzi karguak. Behin urrats hori emanda, bozka emateko garaia iritsi zen. EAJ-PNVko lau zinegotziak Josune Urkolaren alde agertu ziren. PSE-EEko ordezkariak zuri bozkatu zuten. EH Bilduk gehiengo osoa duenez, Agurtzane Solaberrieta Mesak batu zituen aldeko bozka gehien.

Udal idazkariak Agurtzane Solaberrieta alkate gisa izendatu zuenean, txalo zaparra-



Argazkian, 2019-2023 legealdiko udal ordezkariak. EH Bilduk 8 eserleku bereganatu ditu, EAJ-PNVk 4 eta PSE-EEK 1.

ZIN-EGITEA

“EH Bildu nahiz EAJ-PNVko udal ordezkariak legeak hala behartuta hartu zituzten zinegotzi karguak”

da batek hautsi zuen pleno aretoko isiltasuna. Koalizioko kideen nahiz oposizioko or-

dezkarrien txaloak ere jaso zituen Solaberrietak.

2019-2023 legealdiko udal ordezkariak

EH Bildu koalizioak zortzi ordezkari izango ditu: Agurtzane Solaberrieta Mesa (alkate berria), Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugar-

temendia, Luken Arkarazo Silva, Oxkar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

EAJ-PNV alderdiak lau zinegotzi izango ditu legealdi honetan: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Frisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

PSE-EE alderdiak zinegotzi bat izango du, Patxi Suarez Perez.

Xabier Arregi: “Tori Usurbilgo aginte zumea”

Usurbilgo udaletxean ez da aginte makilik, aginte zumea baizik. Alkatetzat utzi berri duen Xabier Arregiren eskutik jaso zuen zumezko uztaia Agurtzane Solaberrietak.

“Agurtzane, hemen dut eskuetan Usurbilgo aginte zumea”. Alkate izendatu berrian, Xabier Arregi Agurtzane Solaberrietarengana hurbildu zen. “Zuri ematea ohore handia eta atsegin handia da niretzat. Ondo ezagutzen zaitut eta badakit zume honek adierazten dituen baloreak bat datozela



Xabier Arregiren eskutik jaso zuen Usurbilgo aginte ikurra.

zure izateko eta agintea ulertzeko daukazun moduarekin”.

Aginte zume hau “zumea da; malgua baina ez hausko-

rra; borobila eta ez goitik beherrakoa”, Xabier Arregik azaldu zuenez. “Hementxe dauzkat berdintasunaren eta feminis-

moaren baloreak. Eta orain Usurbilgo bigarren emakume alkatearen eskuetara doaz. Horrek gogobete egiten nau. Ziur nago Agurtzane, osatuko duzuen udal gobernuak eta udal osoak ekarri handia egingo diozuela herri honi. Eta ziur naiz herria zuen ondoan izango dela, aurrera egiteko beti prest”.

Zumea eskuetan, aginte aldatuta irudikatu zuen hitz hauekin: “Gure alkate Agurtzane, tori Usurbilgo aginte zumea”. Besarkada estu batean bildu ziren biak, bertaratutako txaloen artean.

Agurtzane Solaberrieta: “Interes alderdikoak baztertu eta herri interesei begira aritzeko deia egin nahi dizuet”

Alkate izendatu berriari lagun eta senide ugari batu zitzaizkion pleno aretoan. Hasi, urduri hasi zuen bere hitzaldia. Behin martxa hartu zuenean, sosegatzen joan zen. Herritarren babesa eskertuz ekin zion Agurtzane Solaberrietak alkatetza karguari. “Bihotz bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuet berriro ere EH Bilduren konfiantza jarri duzuen herritarroi. Eta eskerrak eman nahi dizkiet ere, nola ez, udal hauteskunde hauetan beste hautu politikoen alde egin duten herritarrei”.

Usurbildarrentzat bezalaxe, azken lau urteotan alkate gisa jardun duenarentzat ere hitz gozoak izan zituen Solaberrietak: “behin baino gehiagotan esan dudan bezala, niretzat ohore bat da Xabier Arregiren eskutik lekukoa hartzea. Eskerrik asko zuri, Usurbilen eta usurbildarren alde zure onena eman duzulako. Siglak alde batera utzi eta pertsonen arteko tratua zaintzen eta beti herri interesei begira aritu zarela, fin-fin eta nekaezin”. Xabier Arregiren aurretik alkate izandakoak ere gogoan izan zituen Agurtzane Solaberrietak.

Zumezko uztaia, malgua baina sendoa

“Gure aginte ikurra zumezko uztaia da. Nire ustez, zumezko uztai honek erakusten du aginteak nolakoa izan behar duen: apala eta malgua, baina aldi berean, sendoa eta tinkoa. Zumea bezala”. Ezaugarri horiek EH Bilduren jarduteko moduekin bat datozela esan zuen Solaberrietak: “Gu bokazio horrekin gatoz lanera. Apaltasunez, malgutasunez, baina aldi berean sendotasunez”.

Joseba Sarrionandiaren *Lapur banden etika ala politika* (Pamiela, 2015) liburuan iraku-



“Niretzat ohore bat da Xabier Arregiren eskutik lekukoa hartzea”, pleno aretoan aitortu zuenez.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Elkarlanaren bidetik aritu nahi dugu EH Bilduko ordezkariok. Etengabe adostasunak eraikiz, inork inor bazterrean utzi gabe”

rritakoak baliatuz, datozen lau urteotarako asmoak aurreratu zituen. “Sarrionandiak dio bi aukera baino ez daudela: lapur banden partaide bilakatzea ala politika egitea”. Politika egiteko ezintasunaz mintzo da idazle durangarra, “baina aldi berean politika egiteko obligazioaz. Hori bai, politika beste gisa batera obratzeko deia egiten du”. Ezberdin pentsatzen duenari zor zaion errespetua azpimarratzen du Joseba Sarrionandiak bere saiakera liburuan: “Errepublikan sanonena eratuta ere, hurkoarekiko errespeturik ezean politikak ez du izaterik”.

“Usurbil guztiona da eta guztiontzat izan behar du”

Hain zuzen, hori da Agurtzane Solaberrietak gidatuko duen udal gobernu berriaren asmoa. “Herritarrek udala kudeatzeko ardura EH Bilduren esku utzi badute ere, Usurbil ez da EH Bildu. Udalbatza honek erakusten duen bezala”.

Herria anitza denez, “komunitateen arteko sareak josi behar ditugu komunitate bat eta bakarra eraikitzeke”. Horretarako, beharrezkoak izango ditu ezberdinen arteko akordioak. “Interes alderdikoak baztertu eta herri interesei begira aritzeko deia egin nahi dizuet”, adierazi zuen Solaberrietak legealdi hasierako ekitaldian. “Elkarlanaren bidetik aritu nahi dugu EH Bilduko ordezkariok eta EH Bildu prest dago lankidetzara horretan aritzeko. Etengabe adostasunak eraikiz eta inork inor bazterrean utzi gabe. Usurbil guztiona da eta guztiontzat izan behar du”.

Udala eta herriko plaza, “txanpon beraren bi alde”

Sarrionandiaren ideiarekin bat eginez, “politika egitea beraz, gure obligazioa da. Askatasunerako eta herritarren arazoak konpontzeko tresna gisa. Guk politika diogunean herrigintza diogu. Bere burua eraikitzen duen herri bat, herritarrek ezinbesteko eragile dituen herri bat”.

Udala eta herriko plaza txanpon beraren bi alde direla dio alkate berriak. “Herrigintzaren bi aurpegiak dira. Ezinbestean, herriak eta udalak eskutik jardun behar dute. Malgutasunez, bidaide izan. Eta horregatik eskua luzatzen

dizuet gaur”.

“Feminismotik uneoro edanez”

Hauteskunde kanpainan, *Elkarrekin burujabe* izan zen EH Bilduren leloa. Eta hortik ere tira egingo du udal gobernu berriari: “sendotasunez jarraituko dugu behetik gora, Usurbildik Euskal Herriaren norabidean. Burujabetza lantzen, gure herria euskalduntzen, bizikidetzan sakonduz, euskal preso eta iheslari guztiak etxerako bidean jartzen, justizia soziala borrokatzen herritar guztiak bizitza duina izan dezaten”. Eta hori guztia begirada morez egin nahi dutela azpimarratu zuen Agurtzane Solaberrietak, “feminismotik une oro edanez. Ardua honi diodan errespetutik, konpromisoa, ilusioa eta gogoa baditugu. Gure onena ematera gatoz. Eskerrik asko Usurbil eta aurrera”.

“Bakean eta denon artean”

Agurtzane Solaberrietaren azalpenen ondoren, Josune Urkolak hartu zuen hitza. EAJ-PNVren izenean, alkate berria zoriondu zuen. Patxi Suarez PSE-EEko zinegotziaren txanda iritsi zen ondoren. Euskara hutsean aritu zen eta herritarrek emandako konfiantza eskertu zuen ezer baino lehen. “Ohore handi bat da niretzat”, aitortu zuen plenora bertaratu zirenen aurrean. “Denok batera gure arazoak konpon ditzakegu, ukondo ukondo lan eginez, gizarte justu eta orekatu bat lortzeko. Ez dut amaitu nahi hau oso garai ederra dela aipatu gabe. Izan ere, orain elkarrekin lan egin dezakegu, bakean eta denon artean”. Bertaratu ziren herritarrek txalotu egin zituzten Patxi Suarezren hitzak.

Kalezarreko zahar egoitza berria eraikitzen hasteko urrats erabakigarriak

2021erako eraikia izatea aurreikusia dagoen egoitza berriaren gaian urrats berria eman zuen udalbatzak, maiatzaren 23ko osoko bilkuran. Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren Aldaketa behin betiko onartu zuen. Proiektu honi lotuta, hirigintza arloko bi tresna berrien tramitazioan urrats berriak ematen segitzeko konpromisoa agertu zuen.



Maketa honen itxura izango du egoitza berriak. Irudia: Udala.

2015-19 legealdiko udalbatzaren maiatzaren 23ko azken osoko bilkurak, urrats garrantzitsu bat eman zuen etorkizunean Kalezarren eraikiko den adinekoentzako egoitza proiektuari dagokionean. Portalmusu eta Komentua lur eremuen Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren Aldaketa behin betiko onartu zuen aho batez. “Oso egun garrantzitsua da gaurkoa”, zioen Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Arregik.

Laster, emateko moduan egon daitezkeen hurrengo urratsak iragarri zituen funtzioetan zen alkateak; ospatu berri diren hauteskundeetatik osatu den udalbatzak onar-

HITZARMENAK
Alkateak legealdiko azken plenoan berri eman zenez, egoitza berrira heltzeko autobus geltoki eta igogailu berria finantzatzeko dokumentuak lantzen ari da Udala Aldundiarekin

tu ahalko dituen bi hirigintza tresnak. Batetik, Matiaren eta Usurbilgo Udalaren arteko kontzertazio hitzarmena.

Mojen konbentuaren lur eremuan

Hitzarmen honekin, proiektua nola exekutatu erabakitze

ko konpromisoak hartuko dituzte bi erakundeok. Bestetik, ekin-tza plan urbanizatzailea. Hau ere udalbatza berriak onartu beharko du behin betiko, baina denbora gehiago itxaron gabe, presazko prozedura bidez eta udalbatza berria osatu baino lehen, asteotan, alkate dekretuz hasieraz onartu eta jendaurrean jartzeko konpromisoa agertu zuen udal gobernu taldeak.

Kalezarren, garai bateko mojen konbentuaren lur eremuan kokatuko den adinekoen egoitza berriaren proiektuari lotutako albiste gehiago ere badira. Alkateak legealdiko azken plenoan berri eman zue-

nez, egoitza berrira heltzeko autobus geltoki eta igogailu berria finantzatzeko dokumentuak lantzen ari da Udala Aldundiarekin. Horrekin batera, adinekoei asistentzia integrala eskaintzeko “Etxean bizi” programa gauzatzeko akordioa sinatua du Udalak, Foru Aldundiko gizarte gaietarako sailaren sinadura baino ez du falta.

Elkarlanean segitzeko deia

Udalbatzaren osoko ohiko bilkurak irekiak izan eta pleno areto-bera bertaratu daitezkeen arren, normalean ez da inor izaten. Legealdiko azken osoko bilkuran ordea bai; pentsiodunak, herriko jubilatutako kideak bertaratu ziren. Hurbiletik segi zuten, adinekoen egoitza berriaren proiektuari lotutako gai zerrendako puntuaren inguruan udalbatzak erabakitzeak zuen. Egitasmoa aurrerabidean dela ikusita, esker hitzak izan zituzten udalbatzarentzat onartu berri zuten planagatik, eta aurrera begira ere, orain arte bezala, elkarlanerako deia egin zieten udalbatzako kideei. “Gutxi elkarlanerako prest”, adierazi zieten.

Hitzarmena, mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenen zaintza kalitatearen jarraipena egiteko

Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatu beharko duten hitzarmena, maiatzaren 23ko udalbatzaren ezohiko osoko bilkuran onartu zuten udal ordezkariak aho batez. Hitzarmenak urte osoko indarraldia izango du, abenduaren 31ra arte. 8 urtez luzagarria izango da.

Bi urteko bidea egin du gai honek hitzarmen hau onartu arte. Legealdiko azken plenoan udal gobernu taldetik Jone

Urdanpilleta zinegotziak berri eman zenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak duela bi urte beharrezkotzat jo zuen mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrei, jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egitea. Foru Aldundiak zeregin hau udaletako Gizarte Zerbitzuen esku uztea erabaki zuen. Udalbatzuk ordea, lan honetarako nahikoa prestazio ez dela jartzen alegatzen dute. Alegazioa

onartu eta Foru Aldundiak konpentsazio ekonomikoak ematea onartu zuen.

Zaintza lanak egiteko baldintzak

Hitzarmen berri honekin, aipatu laguntza jasotzen ari diren herritarrei gutxienez bi urtero bisita bat egitea adosten da eta modu berezian ere, “bestelako jarraipen modalitateak erabili ahal izango dira etxeko bisitaldiaren ordeztu”. Zaintza lan hau egiteko baldintzak zehaz-

ten ditu udalbatzak onartu eta laster Udalak eta Aldundiak sinatuko duten hitzarmenak. Aipatu moduan zeregin hau Aldundiak Udalaren esku uzten du. “Jarraipenaren helburua da pertsona horiek arreta baldintza egokiak jasotzen dituztela eta etxebizitzako bizikidetzeta eta bizigarritasun baldintzak egokiak direla egiaztatzea, zaintzen kalitatea bermatzea eta arreta gabezia egoera posiblei aurre hartzea”.

Gidabaimena ateratzerakoan ere euskara baliatzeko deia

Buruntzaldeko udal eta autoeskolari esker, gidabaimena euskaraz ateratzea merkeagoa da eskualdean. Atal teorikoa euskaraz prestatzea eta gainditzeak 400 eurorainoko saria du. 2019. urtean zehar geure hizkuntzan prestatzea erabaki duten ikasleen artean Buruntzaldeko autoeskola adina sari zozketatuko dira 2020an; bederatziguztira.

Gai honi lotutako xehetasunen eta zozketan parte hartzeko izen emate eskuorriak banatu ditu Udalak asteotan, 18 urte bete dituzten, eta honenbestez, gidabaimena ateratzeko adinean diren gazteen artean. Helburu argi batekin; orain arte egin izan duten moduan, gazteak gidabaimena euskaraz ateratzera animatu nahi dituzte. Urte hasieran egin zuten 2019ko zozketan Mikel Blazquez Tolosa saritu zuten. Lerrootan elkarriketatu dugu.

NOAUA! Zerk eraman zintuen gidabaimena ateratzera?

Mikel Blazquez Tolosa: Batez ere lan kontuengatik. Urretxuko lantokira joateko autoa behar dut. Gidabaimena gabe gainera



Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saritu dute Mikel Blazquez Tolosa.

MIKEL BLAZQUEZ

“Autoeskolara joan eta errazagoa zela esan zidaten. Gainera sari bat egoki zitekeela atal teorikoa laguntzeko”

ez zaituzte leku askotan kontratatzen.

Zergatik euskaraz?

Autoeskolara joan eta errazagoa zela esan zidaten. Gainera sari bat egoki zitekeela atal

teorikoa laguntzeko.

Erraz gainditu al zenuen?

Lehenengo aldiz lau akatsekin, ez nuen gainditu. Serio jarri eta astebetean segituan atera nuen.

Nola jaso zenuen saritua izan zineneko albistea?

2017ko maiatzean gainditu nuen atal teorikoa. Gidaibaimena 2018ko urtarrilean atera nuen. Lanean nintzen, saria jaso nuela berri ematen zidan telefono deia jaso nuenean.

Ederki bazkaldu nuen.

Denbora pasa zenuen atal teorikoa gainditu zenuenetik praktikoa gainditzera. Aztertzaileren grebagatik?

2017ko maiatzean teorikoa eta 2018ko urtarrilean praktikoa atera nuen. Atal teorikoa gaindituta, praktikoa ahalik eta azkarren atera nahi izaten duzu. Atal praktikoa ez nekien noiz atera ahalko nuen. Ateratzen zihoan. Gainera tartean uda egokitu zen, hilabete bat jai egiten dute.

“Usurbilen behintzat ezagutzen ditudan gehienek euskaraz atera dute”

NOAUA! Gidabaimena ateratzerakoan euskararen aldeko hautua egitea ohiko da zure inguruan?

Mikel Blazquez Tolosa: Gehien-goak bai, Usurbilen behintzat ezagutzen ditudan gehienek

euskaraz atera dute.

Zati praktikoak euskalduntzeko egoten segitzen du.

Nire kasuan, klaseak erdaraz eta azterketa ere erdaraz izan zen. Euskaraz teorikoa

bakarriz izan zen, baina moldatu ginen.

Gidabaimena ateratzekotan den horri, zergatik aholkatu zenioke euskara hautatzea?

Animatuko nuke, aukera ona baita. Sari bat tokatzeko aukerarekin gainera, motibazio horrek asko mugiarazi zidan.

Ni bezala zortea badu, ederki ospatuko du gero.





Maskaradako argazki eta bideo gehiago noaua.eus web orrialdean aurkituko dituzue, noaua.eus/galeriak/ estekan.



Ikastola Eguneko argazki eta bideo gehiago noaua.eus web orrialdean aurkituko dituzue, noaua.eus/galeriak/ estekan.

Natali, Usurbilgo jaietan eta Berri Txarrak taldearekin Kobetamendin

Berri Txarrak taldeak uztailaren 14an Kobetan (Bizkaia) joko duen kontzerturako zortzi talde edo bakarlariren bila ibili da Durangoko Azokako Ahotsenea gunea. Euskaraz abestu eta 2019an diskoa argitaratu izana, hortxe Ahotseneak egin zuen deialdian parte hartu nahi zutenek bete behar zituzten baldintzak.

Deialdira guztira, 71 bakarlarari edo talde aurkeztu dira, tartean Natali Usurbilgo taldea. Ahotsenearen 8 talde hautatuen artean da herriko musika taldea! Natalirekin batera kontzertua eskainiko dute Berri Txarrak-en aurretik, uztailaren 14an, Kobetako



Ekainaren 30ean Usurbilgo frontoian arituko da eta uztailaren 14an Kobetamendin, Berri Txarrak-en kontzertuaren baitan antolatuta den jaialdian.

bi eskenatokietan 16:30-20:30 & Run (Araba/Bizkaia), Huts artean, Diabolo Kiwi (Nafarroa (Bizkaia), Dukka (Gipuzkoa), Behera), Iont (Araba), Patx Atzapar (Nafarroa) eta Larra

Bideak (Nafarroa) taldeek.

“Garena”

Kobetako kontzertua baino lehen, Natali Usurbilgo jaietan entzuteko aukera izango dugu. Ekainaren 30ean 23:00etan frontoian. Gogoan izan, estreinako diska martxoan kaleratu zuela Natalik; “Garena”. Orduetik, Euskal Herrian barrena dabilta Natali Izagirre, Ixak Arruti, Olaia Inziarte, Gorka Mendizabal eta Andres Insua “Garena Tour” aurkezpen biran. Lan berriko “Zerbait aldatzera doa” izeneko abestiari bideoklipa sortu zioten. Otsailean grabatu zuten herriko hainbat figuranteren laguntzaz. Taldearen berri hemen: natalimusika.com

Kantu Taldea, jaietatik oporretara

Hileroko ohiko kantu-jira ospatzen duten egun berean, ekaineko azken larunbatean egokitu da Usurbilgo jaietan Kuxkuxtu txarangarekin euskal preso eta iheslariaren eskubideen alde egin ohi duten emanaldi berezia. Hilaren 29an 12:00etan Mikel Laboa plazan finkatu dute bildu eta abiatzeko hitzordua. Kantu Taldetik ohartarazi dutenez, festetako saio honen ostean, udako etenaldia izango dute gero. Irailaren 16an itzuliko dira asteleheneroko entseguetara eta irailaren 28an izango dute uda osteko lehen kantu-jira.

Egitarau banaketa

Usurbilgo festetako egitaraua asteburu honetan banatuko du Usurbilgo Udalak etxez etxe. Gogoan izan, diseinu txapelketa irabazi zuen Irati Azkue oriotarrak sortutakoa dugu



Ekainaren 29an jaietan arituko dira Kuxkuxtu txarangarekin batera.

aurtengoa.

Jaietan garelara nabari dadila

Urtero errepikatu arren, gogorazi beharrekoa. Jaietan izango gara bost egunez eta nabari dadila. Etxean urteko beste zenbait ospakizunetarako gordea izango duzuen koadrodun zapia atondu eta

prestatzen joan. Ekainaren 28tik uztailaren 2ra lepoaren bueltan lotu eta festara!

Adi maskotari

Jaiok zaindari propioa izango dute urtero moduan. Jokin Eizagirrek sortutako maskota ageriko zaigu astebete barru, une eta leku jakin batean. Adi!

Udako solstizioaren ospakizuna

Uda parterako eskaintza zabala prestatu du Gaztelekuak. Larunbat honetan, udako solstizioa ospatuko dute. Gainontzean, gogoan izan txangoetarako Gaztelekuan jaso beharko den “gurasa baimena” orria bete beharko dela.

■ Ekainak 22 larunbata: Udako solstizioaren ospakizuna DBH1-ekoekin.

■ Ekainak 24 astelehena: Txokoaldeko Txalaparta Txokora irteera DBH1-ekoekin.

■ Ekainak 27 osteguna: “Beldur Barik” sariko ekin-tza: Zumaia-Deba txangoa eta afaria.

Informazio gehiago:

943 371 050
688 713 838
gaztelekua@usurbil.eus

“Denboraldi ona egin dugu, baina Liga ez irabazi izanaren arantzatxoa geratu zaigu”

Super Amara Bera Bera taldean dihardute Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi usurbildarrek. Denboraldia amaitu berri da eta Estitxuk taldea uztea erabaki du. Estherrek berriz, taldean jarraituko du datorren urtean ere. Hala ere, oraindik bada zerbait batzen dituen: Santixabeletako txupinazoa botatzeko hautatu dituzte biak. Ekainaren 28an Udaletxeko balkoian topo egingo dute berriz. Eskubaloiko bizipenak partekatuko dituzte oraingoan NOAUA!rekin.

NOAUA! Kopa eta Superkopa irabazi dituzue aurten. European, final laurdenetan sartzeko-tan izan zineten nahiz eta azkenean helburu hori ez zenuten lortu. Nola definituko zenukete denboraldiak eman duena?

Esther Arrojeria: Nik uste orokorrean denboraldi ona egin dugula, baina ni pertsonalki arantzatxo batekin geratu naiz: liga ez irabazi izanarekin. European uste baino urrutiago iritsi ginen eta espero baino maila hobea erakutsi genuen eta horrekin geratuko gara. Irabazitako bi tituluak hortxe daude, ligaren arantzatxoa ere bai, baina tira.

Estitxu Berasategi: Helburu guztiak lortu ez baditugu ere, asko ikasi dugu eta esperien-



Esther Arrojeriak eta Estitxu Berasategik aurtengo denboraldiko bizipenak partekatu dituzte NOAUA!rekin.

ESTITXU BERASATEGI

“European etxean jokatu ditugun partida guztiak izugarriak izan dira. Denok jokatzeko aukera izan dugu”

tzia ezberdinak bizi izan ditugu. Europakoari begira, maila polita eman genuen.

Momentu gogoangarriren bat?

E. A: Aurtengoari dagokionez, bereziki goxotasunez gogoratzen dut Artalekun jokatu genuen partida European lortu genuen lehen garaipena izan zena. Goraino bete zen Artale-

ku, jendea asko konprometitu zen gurekin eta asko lagundu ziguten partida osoan zehar. Momentu horrekin geratu naiz aurten.

E. B: European etxean jokatu ditugun partida guztiak izugarriak izan dira. Aurten Kopa irabazteko horrenbesteko lanik izan ez badugu ere, polita da ikustea zenbat jende hurbildu zen. Denok jolasteko aukera izan dugu.

Partidak ikustera jende dezentte hurbiltzen da Bidebietako kiroldegira. Gustura aritzen zarete etxean?

E. A: Aurten Europako par-

tidetan, edo beste neurketa garrantzitsuetan –Rocasaren aurka esaterako–, jendearen erantzuna izugarria izan zen. Gero telebistaz ere eman zituzten partida horiek. Pabiloia bete dugu esandako partidetan eta alde horretatik ez daukagu kezakerik. Aste barruan jokaturako partidetan ere jendea hurbildu da. Gehiago gustatuko litzaiguke-la? Jakina, beti eskatu behar da gehiago, baina oso pozik gaude.

E. B: Betikoak beti etortzen zaizkigu animatzera eta etxean jokatzeko edo kanpoan jokatzeak ez dauka zerikusirik.

Esther Arrojeria: “Mailarik onenean gaude”

NOAUA! Zer eman dizu talde honek?

Esther Arrojeria. Espainia mailan dagoen talderik onena da eta etxe ondoan izateak ez dauka preziorik. Mailarik onenean gaude, profesionalki ere baldintza onenak eskaintzen dituen taldean eta oso gustura nago. Etxetik gertu,

lagunekin, helburu konkretu batzuekin... oso urte politak izan dira. Tituluak irabazi ditugu, horiengatik borrokatu dugu urtero eta horrelako talde lehiakor batean egotea asko gustatzen zait.

Taldeko beteranoenetako bat zara. Jokalari askok taldea utzi-

ko dute denboraldi amaieran. Kezkatzen al zaitu horrek?

Pena handia daukat lagun askok utziko dutelako taldea, Estitxu barne. Nik uste asko aldatuko dela taldea, baina urtero egoten dira aldaketak: batzuk joan besteak etorri, eta nahi edo ez nahi taldeak aldatu egin behar du.

Kanpotik jendea etorriko da eta horiek lehenbait lehen egokitzen saiatuko gara eta emozioz beteriko beste denboraldi bat espero dut. Berritoki ere oso talde lehiakorra egingo dugula uste dut eta titulu askorengatik borrokan jarraitzeko moduan izango gara.

Esther Arrojeria: “Neskena edo mutilena izan, futbola futbola da”

NOAUA! Nesken eliteko kirolak geroz eta ikusgarritasun gehiago du. Errealeko nesken partida garrantzitsuei begiratu besterik ez dago izan duten inpaktua irudikatzen. Zuen ustez futbola ikusgarritasun gehiago du eskubaloia baino?

Estitxu Berasategi: Inolako meriturik kendu gabe, lortu dutena izugarria izan da, baina futbola beti dago beste kirol guztien gainetik izan neska edo mutil.

Esther Arrojeria: Guk ere Kopa irabazi genuen, baina izan genuen harrerak ez zuen inolako zerikusirik izan. Udaletxean gu bakarrik geunden alkatea eta zinegotziekin eta haien kasuan jende pila bat bildu zen Alderdi Ederreko plaza horretan, herriz herri ibili ziren kopa auzotarrei erakutsiz. Ez dauka zerikusirik. Beti esaten dugu: futbola futbola da, neskena izan mutilena izan. Horren kontra egitea zaila dago momentuan, baina pixkanaka joango gara horren aurka eta ea gauzak berdintzen joaten diren.

Nolakoa da Bera Bera bezalako talde garrantzitsu batean herriko beste pertsona batekin jokatzeko aukera izatea?

E. B.: Hona etorri aurretik ez ginen ezagutzen pertsonalki. Esther etorri zen gure entrenamenduren bat ikustera: Esther Bera Berakoa! Lotsatuta, baina ongi. Hona iritsi nintzenan



Esther Arrojeria Super Amara Bera Bera eskubaloi taldeko jokalaria beteranoetako bat da. “Aurten, Europako partidetan nahiz gainontzeko partida garrantzitsuetan, jendearen erantzuna izugarria izan da”.

ESTHER ARROJERIA

“Guk ere Kopa irabazi genuen, baina izan genuen harrerak ez zuen inolako zerikusirik izan. Realeko nesken kasuan, jende pila bat bildu zen Alderdi Ederreko plaza horretan”

herrikoren bat egotea ondo dago, beti daukazu babes puntu hori.

E. A.: Etorri zenean ez geneukan harremanik. 5 urteko aldea daukagu eta adin txikiagoetan nabaritzen da. Behin hona iritsi zenean beti eskaintzen nion laguntza edo behar zuena, konfiantza hori.

Usurbilen hasi zineten eskubaloian jokatzeko. Harrobi lana egin du Usurbil K.E. taldeak. Etorri zenean, jende gaztea dator atzetik?

E. A.: Izan daiteke. Orainxe ber-

tan ez nago oso jarrita Usurbilgo harrobien denbora faltagatik eta abar. Lehen gehiago jarraitzen nituen. Klubaren lana da orain urte urte taldeak ateratzen jarraitzea. Azken urteetan taldeak desagertu dira eta pena da. Maila bakoitzeko taldeak ateratzen saiatzen badira nik uste atera ditzaketela.

E. B.: Orain arte bezala mantentzen jarraitzen badute, esentzia hori jarraitzen nik uste jokalarionak agertuko direla.

Estitxu Berasategi: “Zerbait behar nuen aldiro Esther hor zegoen”

NOAUA! Estitxu zu taldea uztera zoaz ikasketetan buru-belarri sartzeko, baina jakinarazi duzu elitean ez bada ere eskubaloian jarraituko duzula. Usurbilgo taldera itzultzeko asmoa al daukazu?

Estitxu Berasategi. Oraindik ez dakit zer egingo dudan, pentsatzen ari naiz. Nire aukere-

tako bat da, hori bai. Urte lasai bat nahi dut, bat behintzat.

Bera Beran egin duzun ibilbidearen balantzea nolakoa litzateke?

Hirugarren urtea dut eta gorrak izan da. Pertsonalki asko lagundu dit nire burua ezagutzen bai eta jende des-

berdinarekin bizitzen. Gauza positiboekin geratuko naiz. Denboraldi amaieran, ematen du ezetz, nekatuta iristen zara, baina oso positiboa izan da. Ezagutu dudana jendea izugarria izan da eta momentu asko eramango ditut.

Zu iritsi zinenan, Esther he-

men zegoen. Lagungarria egin al zitzaizun?

Zerbait behar nuen aldiro, hor zegoen Esther eta hasieran txofer lanak ere egiten zizkidan [kar kar kar] eta beti eskertzeko asko izango dut. Ama asko izan ditut hemen eta Esther horietako bat izan da.

Jaietan murgiltzear da Kalezar

Ostiral honetan hasiko dira San Joan Jaiak kalezarren. Astelehenara arte, festa giroa nagusi izango da.

Ekainak 21, ostirala

- 16:30 Buruhandiak.
- 17:30 Herriko dantzariak.
- Ondoren, auzotarren arteko jokoak.
- 23:30 Kontzertuak: Pelax eta Floxbin. Ondoren: Iratzar taldearekin dantzaldia.

Ekainak 22, larunbata:

Umeen Eguna

- 10:30 XV. Ume Krosa.
- 11:30 Jolasak.
- 16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).
- 16:30 Tailerrak.
- 18:00 Txokolatada.
- Ondoren: buruhandiak.
- 19:00 Dj Guderekin dantzaldia.
- 00:00 Dj Seymar eta X2r.



Ostiral honetan, Pelax eta Floxbin arituko dira zuzenean. Kontzertuaren ondoren Iratzar taldeak girotuko du dantzaldia. Argazkia: Floxbin.

Ekainak 23, igandea:

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 10:00 Oilasko-biltzaile txikien irteera.
- 14:00 Oilasko-biltzaileen bazkaria (tiketak kaffa kafetegian eros daitezke ekainaren 12tik 20ra bitartean) eta ondorenak.
- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 22:00 San Juan sua. Ondoren, eskearen jarraipena.

Ekainak 24, astelehena:

San Juan Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
 - Ondoren: toka.
 - 13:00 "Gorritiren Showa".
 - 16:30 Buruhandiak.
 - 18:30 Soka dantza.
 - Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa "Saizar" Sagardotegiaren eskutik.
- Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.

Udako ordutegia udal liburutegian

Udako oporrekin batera, urte garai honetara egokituko du ordutegia Sutegi udal liburutegiak ekainaren 24tik irailaren 9ra. Tarte honetan, astelehenetik ostiralera 9:30-14:00 artean irekiko dute. Uztaileko astelehenetan izan ezik; jaiak tarteko hilaren 1ean eta 2an itxita egongo da liburutegia. Gainerako astelehenetan, uztailearen 8an, 15ean, 22an eta 29an goiz eta arratsalde zabalduko dute; 9:30-14:00 artean eta 17:00-19:00 artean. Urrira arte itxita egongo da udal liburutegia larunbatetan.

Informazio gehiago:

- Irazu, 14 kalean
- biblioteka@usurbil.eus
- 943 360 693
- 688 625 477 (whatsapp zerbitzua).

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkideza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019

(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

EKAINAK >>>>> 2, 16, 30

UZTAILAK >>>>> 14, 28

ABUZTUAK >>>>> 11, 25

IRAILAK >>>>>> 8, 22

URRIAK >>>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>>> 1, 15, 29



Erraustegia geratzea delitua ez zela izan berretsi du Espainiako Kontu Auzitegiak

Espainiako Kontu Auzitegiak errugabetu egin ditu bigarrenez, eta honenbestez ez du aintzakotzat hartu salatzaileek, egungo Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioako arduradunek EHBilduko ordezkari eta 2011-15 legealdian GHK-ko lehendakari izandako Ainhoa Intxaurrandietaren eta foru ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkinen aurka aurkezturiko helegitea. Aipatu auzitegiak bigarrenez eman die arrazoia EHBilduko kideei eta honenbestez, 2013ko azaroan erraustegiko lanak eteteko hartu zuten erabakia delitua ez zela izan argi utzi du. Epaiak dio GHK-k ez duela behar bezala frogatu auziperatuei egotzitakoa. Zuzen baliatu zutela diru publikoa.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak joan den urriaren 8an Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkin errugabetez zituen Espainiako Kontu



Epaiak dio GHK-k ez duela behar bezala frogatu Ainhoa Intxaurrandietari eta Iñaki Errazkini egotzitakoa. Zuzen baliatu zutela diru publikoa.

Auzitegiaren epaiaren aurkako helegitea ez du aintzakotzat hartu aipatu epaitegiak eta honenbestez bigarrenez, errugabetu ditu Intxaurrandieta eta Errazkin, 2013ko azaroan Zubietako erraustegia eraikitze lanak eteteko enpresa eraikitzaileekin adostuta hartutako erabaki hartatik.

Gogoan izan, 40 milioi eurotik gora beren poltsikotik ordaintzea eskatzen zieten

EAJ eta PSE alderdiak agintean dituen foru gobernuak, Intxaurrandietari eta Errazkini, urte luzez milaka gipuzkoarrek eskatutakoa betetzeagatik; haien aurreko legealdian, EAJ eta PSE-k sustaturiko Zubietako erraustegiko lanak eteteko 2013ko azaroan enpresa eraikitzaileekin adostutako akordioagatik.

Aipatu bi alderdiok agintean dituen GHK-k epaitegietan sa-

latu zituzten EHBilduko bi ordezkariak. Iazko apirilean deklaratu zuten Madrilen Intxaurrandietak eta Errazkinen. Joan den urrian Espainiako Kontu Auzitegiak arrazoia eman zieten EHBilduko ordezkari. Zubietako erraustegiko lanak geratzea ez zela delitua izan ebazti zuen Espainiako Kontu Auzitegiak. “Guk bagenekien ondo jokatu genuela, horrela jokatu behar zela, herritarron interesak defendatu genituela”, adierazi zion NOAUA!ri Intxaurrandietak urriko epaia argitara eman berrikan.

Erraustegia, gairadimentsionatua

Ez hori bakarrik, Zubietan eraiki nahi zen erraustegia gairadimentsionatua zegoela ere aitortzen zuen Madrilgo auzitegiak. Epai hura kaleratu eta gutxira helegitea aurkeztu zuen GHK-k. Baina helegite hura aintzakotzat hartu ez eta epai hura berretsi du orain Espainiako Kontu Auzitegiak.

“Bizitzaren alde egitea, ezin da inoiz delitua izan”

Sare sozialetan ugariak izan dira egunotan, Espainiako Kontu Auzitegiak Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkin bigarrenez errugabetu dituen epaiaren harira izan diren erreakzioak. **Errausketaren Aurkako Mugimenduaren** esanetan, “EAJ eta PSEk eginiko eskaera miserablea atzera bota dute bigarren aldiz. Erraustegi bat gelditzea, bizitzaren alde egitea, ezin da inoiz delitua izan. Zorionak!”.

Gipuzkoa Zutik mugimenduak poza adieraztearekin batera, honakoa adierazi dute. “Hainbesteko ustelkeria darion erraustegiagatik zuen aurka egitea ere, ze lotsagabeak. Zorionak, eta jakizue, ez zaituz-

tegula bakarrik sekula utziko!”.

Usurbilgo Udaleko alkatetzara heldu berri den Agurtzane Solaberrietak ere zorion eta eskertza mezua helarazi die. “Mendeku hutsean oinarritutako auzi bidegabe baten amaiera izatea espero dut. Zorionak bikote eta eskerrik asko usurbildarren partez!”.

Gipuzkoako EH Bilduk Ainhoa eta Iñaki zoriondu eta joan den asteko epaia albiste pozgarritzat jotzearekin batera diotenez, “beste behin argi gelditu da gipuzkoarroi emandako hitza betetzea izan zela zuen helburu bakarra. Besarkada bana!”.

LAB sindikatuaren esanetan, “argi zegoena berretsi egin dute Ainhoa Intxaurrandietak eta Iñaki Errazkinen hartu zitekeen erabaki zuzenena hartu zuten; erabaki horrek, gainera, babes sozial eta sindikal zabala zuen. Errauste plantaren kontratua etetea arduraz jokatzeko izateaz gain, juridikoki zuzena izan da hasieratik”.

ELA sindikatuaren iritziz, “sententzia honekin frogatuta geratzen da EAJ eta PSEk prozesu guzti honetan izan duten helburu nagusia, Intxaurrandieta eta Errazkinen aurkako mendeku pertsonala”.

Ildo beretik mintzatu da **Sortu**.

“Bilduk erraustegia gelditze-ko konpromisoa hartu zuen 2011ko hauteskundeetan. Iñaki Errazkinen eta Ainhoa Intxaurrandietak hitza bete zuten. Mendeku gosez, PNVk eta PSEk haien aurka jo zuten. Iñaki, Ainhoa: zuen zintzotasunak handi egiten zaituzte. Biba zuek!”

Alternatibak harrotasuna adierazi du. “Harro ingurumenaren alde eginiko lanagatik; harro gipuzkoarren osasunaren alde egindakoagatik; harro birziklagarria dena erraustearen aurka egoteagatik. Harro zuen lanagatik Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkin. Zorionak!”.

Begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza deialdia

2018-19 ikasturtean ikastarootakoren bat egin duen 16 urtetik gorako usurbildarrak eskatu ahaliko du Usurbilgo Udalaren diru-laguntza, ekainaren 24tik uztailaren 5era (bi egunok barne).

Horretarako, Usurbilen errol-datua egon behar du, ikastaroa euskaraz egin izan eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea eskatzen da. Baita "ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea. Araututako epearen barnean (2021eko uztailaren 30a baino lehen) titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio udalari jasotako dirulaguntza".

Aurkeztu beharko duen dokumentazioa: dirulaguntza eskari normalizatua, eskatzailearen NANaren fotokopia,



Ikastaroon %50a diruz-laguntzeko aukera eskaintzen du Udalak.

matrikularen ordainagiria, atal teorikoa gainditu izanaren agiria...


Ikastaroon %50a diruz-laguntzeko aukera eskaintzen du Udalak. Begirale izateko ikastaroen kasuan, gehienez

ere 250 euroko laguntza, aisialdiko zuzendari ikastaroaren kasuan, gehienez 170 euroko laguntza iragarri du.

Informazio gehiago: ekainaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Laboaren Uztailaren atarian

Uztaileko ostegunak Laboarenak izango ditugu. Bere omeneko plaza eta eskulturaren bueltan, musika gauak biziko ditugu hurrengo hilabetean. Laboaren Uztaila ziklo ezagunak edizio berri bat abiatzear du. Antolatzaileek aurreratu dute jada, hurrengo hilabeteko ostegun gauetako 22:00etan Mikel Laboa plazara etorriko diren musikariak: uztailaren 4an eMe, 11n Satelitik, 18an Pelax eta 25ean MICE.



MICEren kontzertuarekin amaituko da kontzertu zikloa.

Euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza deialdia

"Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2018-2019 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei beka emateko". Honenbestez, ikasturte honetan, iazko irailetik aurtengo abuztuaren 31ra arte

euskara ikasten aritu diren 16 urtetik gorako Usurbilen erroldaturiko herritarrentzat diru-laguntza deialdia iragarri du Udalak.

Euskara doan ikasteko aukera

Azken urteon ildotik, Usurbilen euskara doan ikasteko aukera eskaintzen du Udalak. Hain zuzen, matrikula kostuaren %100eko diru-laguntza

jaso daiteke (600 euroko mugarekin). Diru-laguntzok jasotzeko ikastaro osoan %80ko asistentzia izatea ezinbestekoa izango da, eta Euskaltegiaren ziurtagiri bidez gutxieneko aprobetxamendua gainditzea. Diruz lagunduko ditu Udalak: HABEk homologatutako ikastaroak (modulazio ezberdinetakoak, alfabetatze ikastaroak, autoikaskuntza...) eta homolo-

gatu gabeak (modulazio txiki-koak).

Eskaerak ekainaren 24tik uztailaren 5era (bi egunok barne) aurkeztu ahaliko dira, dokumentazio honekin: diru-laguntza eskari normalizatua, eskatzailearen NANaren fotokopia, matrikularen ordainagiria, asistentzia egiaztatzea... Informazio gehiago: ekainaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Usurbil Autoak

MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Uztailaren 6an, Uxue Trail

Uztailaren 6an mendilasterketa solidarioa egingo da Usurbilen. Andatza inguruak zeharkatuko ditu proba herrikoiak. Irabaziak Phelan-McDermid Sindromea duen Uxue Martin gazte-txoaren alde bideratuko dira.

Laguntzeko modu ezberdinak daude; batetik, Uxue Trail proban izena eman eta lasterketan parte hartzea uztailaren 6an. Bi distantzietako proba izango da, proba motza edo luzea egin ahalko da.

Dorsal solidarioa

Lasterka aritu nahi eta ezin duenak, badu elkartasuna adierazteko beste modu bat ere; dorsal solidarioa eskuratzea. Alegia, nahiz eta lasterketan ez parte hartu, aipatu sindromearen ikerketara bideratuko den diru ekarpena egin daiteke. Guztia, kronoak.com atariaren bidez.



Uztailaren 6an proba motza edo proba luzea egin ahalko da.

Izen-ematea zabalik da

- Eguna: uztailak 6 larunbata.
- Irteera: Usurbilgo frontoitik.
- Abiatzeko hitzordua: 9:00etan
- Proba luzea: 20 km. Prezioa: 20 euro.
- Proba motza: 11 km. Prezioa: 15 euro.
- Dorsal solidarioa. Donazioa.
- Izen ematea: kronoak.com atarian, uztailaren 5eko gaue-

ko 22:00ak arte.

- Oharra: oparien zozketa lasterketa amaieran, parte-hartzaile guztien artean.

Irailean, Pirinioetara

Andatza M.K.K.-k Pirinioetako Estos bailara bisitatuko du irailaren 21eko asteburuan. Irteeran izena emateko epea zabalik da.

- Informazio gehiago: andatza.com

Hiru istripu izan dira bi egunetan

Azken aldian istripu ugari izaten ari da inguruotan. Haietako hiru bi eguneko tartean jazo ziren joan den astean. Ekainaren 12an Aginagan traktore baten eta auto baten artean, bestea Osinalde industriagunean. Auto batek txirindulari bat harrapatu zuen. Bi istripuetan zauritu bana izan zen eta biak Donostia ospitalera eraman zituzten. Biharamunean jazo zen hirugarren istripua, N-634 errepideko

puntu beltzetako batean, bi autoren arteko talka izan zen Txokoaldeko sarbidean.

Puntu beltz bat baino gehiago dago N634 errepidean

Azken asteotan, istripu gehiago izan da udalerria zeharkatu eta puntu beltz bat baino gehiago dituen N-634 errepidean; Luzuriagan bi istripu izan dira azken asteotan. Beste bat, Txikierdi eta Troia arteko errepide zatian.



Txokoaldeko sarbidean bi autoren arteko talka izan zen ekainaren 13an.

Usurbil K.E.-ren afaria

2018-19 denboraldia agurtzeko afaria antolatu du Usurbil K.E.-k ekainaren 22an 21:00etan frontoian. Txartelak hilaren 20a baino lehen eskuratu beharko dira Bordatxon, 20 euroren truke, 12 euro ordainduta 14 urtera arteko gazteek. Menua: enbutidoak, txanpiak saltsan, lumagorri oilaskoa, saiheskia letxugarekin. Ijito-besoa izozkiarekin. Kafea. Edariak, txotx sagardoa, eta bestelako edariak.

UEMAren topaketa ibiltaria ekainaren 26an abiatuko da Usurbildik

Udalerri euskaldunetako gazteei zuzendutako topaketa ibiltaria antolatu du Usurbil kide duen UEMA-k (Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak) ekainaren 26tik 30era. Negu partean bideratu zuten inskripzio kanpainan izena eman zuten 14-18 urte arteko 56 partaide izango dituen ekimena ekainaren 26an, goizeko 11:00etan abiatuko da Usurbilgo plazatik. Oiar-tzun, Bera eta Arantzara arteko bidea egingo dute udaleku ibiltariok. "Gazteak euskararen inguruan sentibilizatzeko, kontzientziazteko eta eragile aktibo bihurtzeko helburua du topaketa honek".

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiuak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ALDAMU
KONPONKETAK

KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665
XABIER Usurbil

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Ilogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzean. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatzen lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten

bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informez ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokala bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokala/gara-

je bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokala komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingelesko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruatoko kudeatzailea behar da Buruntzal-



Zorionak Hugo!!

Ekainaren 17an ospatuko ditugu zure 8 urteak. Muxu handi bat denon partez!

Heriotzak

Pepita Mitxelena Retegi

93 urterekin hil zen ekainaren 16an Usurbilen



dean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxea-rekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldialdi@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegian, info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna,

externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldean. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila da-

bil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketari. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak erbitxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo

nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

BESTELAKOAK

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltzeta bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat baldu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerdik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarta Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 20 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 22 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 23 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ekainak 20 - Ekainak 30

Osteguna 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 29 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 30 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

21 ostirala

- San Joan jaiak Kalezarren. 16:30ean. Ikus 16 or.
- Zumartekoen ikasturte amaierako kontzertuak. 19:00etan Artzabalen.

22 larunbata

- San Joan jaiak Kalezarren, Umeen Eguna. Ikus 16 or.
- "Xua Gurasoekin Etxera" ekimenaren aurkezpena. 12:00etan Askatasuna plazan.
- Usurbil K.E.-ren denboraldi amaierako afaria. 21:00etan Usurbilgo frontoian.

23 igandea

- San Joan jaiak Kalezarren, Oilasko Biltzaileen Eguna. Ikus 16 or.

Zumartekoen ikasturte amaierako kontzertuak

Ikasturte amaiera musikatuko dute Zumarte Musika Eskolako ikasleek. Ostegun honetan Musika Txokoko ikasleak eta konboak arituko dira Artzabalen. Ostiralean amaituko da kurtso amaierako kontzertu zikloa, Anakruxa eta The Hastelen's taldeen emanaldiekin.

Ekainak 20, osteguna

- 18:00 Musika Txokoko ikasleen emanaldia Udarregi Ikastolako areto nagusian.
- 19:00 Konboak eta gitarra taldeen kontzertua Artzabalgo plazan.



Ostiralean amaituko da kontzertu zikloa.

Ekainak 21, ostirala

- 19:00 Konbo eta gitarra taldeen kontzertua Artzabalgo plazan: Anakruxa, The Hastelen's.

Ekainaren 27an 'Dantzipuinak' Sutegin, Jaione Albeniz eta Ixabel Agirresaroberekin

Europako eta Ekialde Hurbileko ipuinak eta dantzak uztartuz sortu dute Dantzipuinak. "Bertan, ipuinak entzun eta dantza zuzenean eskaintzen da. Dantza, ipuina. Ipuina, dantza".

- Ekainak 27 osteguna.
- Ordua: 20:00.

- Sutegiko auditorioan.
- Sarrera: doan.
- Jaione Albeniz dantzaria (Sebastopol dantza eskola) eta Ixabel Agirresarobe kontalaria.
- Antolatzaileak: Muxurbil eta Sebastopol dantza eskola.

Datozenak

Zirriborro eta Eguneko Zentroko kideen lanen erakusketa

Sutegiko aretoan izango ditugu ikusgai jaiotan, Zirriborro tailerreko ikasleek eta Eguneko Zentroko erabiltzaileek urtean zehar eginiko sortze lanak; margolanak, eskulanak... Ekainaren 28tik uztailaren 2ra, ordutegi honetan: goizez, 11:00-13:00 artean eta arratsaldez, 18:00-20:00 artean. Aldaketarik ez bada, jaietako pintura lehiaketetako marrazki sarituak ere Sutegira eramango dituzte gero eta Santixabelak amaitu artean erakustaretoan izango dituzue ikusgai.

UEMA-ren Salto!

topaketaren hasiera

UEMAk udalerrri euskaldunetako gazteei zuzendutako topaketa ibiltaria antolatu du ekainaren 26tik 30era bitartean. Usurbildik abiatuta, 14-18 urte bitarteko 56 gaztek Arantzarako bidea egingo dute. "Gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta eragile aktibo bihurtzeko helburua du topaketa honek", UEMatik aditzera eman dutenez. Ibilbidea 11:00etan abiatuko da, Mikel Laboa plazatik.

ARGILAN
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 629 272 859 eta 943 36 13 80
 BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL


 ADA
 -MASAJEAK-
 633 36 22 33
 erreka-txiki 1, USURBIL


 Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

begi•bistan

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakean.

Begiraleekin antolatutako jarduerak

657 794 677

www.begi-bistan.com
info@begi-bistan.com

Kanpokaldeko dekorazioa!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude

Udarregi

IKASTOLA



On do paga santxabelak!!!

SANTXABELA

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.eus